

EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

INFORMAZIO OROKORRA

EGUNAK	Urriak 17-19-24-26	IKASGELA/ TOKIA	Donostiako IVAP M3 gela San Bartolome kalea, 28 Donostia
IRAUPENA	20 ordu	ORDUTEGIA	09:00 - 14:00
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Irailak 30	ONIRITZI EPEA	Urriak 3- 10
IKASLE KOPURUA	10 gehienez	NORENTZAT	EAEko herri-Administrazioetako langileentzat
IRAKASLEA	Maite Goñi		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Eguneroko jardunean eraginkorrago lan egiteko ingurune digitalak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzea eta erabiltzen ikastea. Garrantzitsua da baliabide horiek nor bere egitea eta norberaren beharren baitan erabiltzea; nor bere ikas- alorra eta ingurune digitala aberastea eta estrategiak garatzea.
HELBURU ZEHATZAK	Ingurune digitalean informazioa kudeatzen ikastea. Bideo tutorialak, infografiak, aurkezpenak... egiten ikastea. Euskararekin lotutako aplikazioak erabiltzen ikastea (itzultzaileak, testu laburtzaileak).

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA	Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da eta ikasleen benetako lan-jardun eta eguneroko beharretatik abiatuko dira zereginak. Teoria eta praktika uztartuko badira ere, praktika izango da ikastaroaren ardatz metodologikoa. Funtsean, eginez ikasiko dute ikasleek.
PROGRAMA	1. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA I: <ol style="list-style-type: none">Eguneroko jardunari lotutako informazio-beharrak identifikatzea eta ingurune digitalean modu antolatuan adieraztea.Datu eta eduki garrantzitsuak ingurune digitalean aurkitzea, bilaketa erraz zein aurreratuen bidez.Eguneroko jardunari lotutako bilaketa estrategiak identifikatzea eta sortzea ingurune digitalean.Eguneroko jarduna eraginkorrago egiteko nabigatzaileek eskaintzen dituzten pertsonalizazio konfigurazio aukerak ezagutaraziko dira eta nabigatzailea norberaren beharren

EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN

baitan konfiguratzeko jarraibideak eskainiko dira.

- e. Eguneroko jardunari lotutako sareko datu, informazio eta eduki digitalen fidagarritasuna eta seriotasuna kritikoki aztertzea eta ebaluatzea.
2. SAIOA: INFORMAZIOAREN KUDEAKETA II
 - a. Sareko edukietan topa ditzakegun egile-eskubide eta lizentzia-mota ezberdinak ezagutzea eta eduki horiek lizentzia motaren arabera nola erabil eta berrerabil ditzakegun jakitea.
 - b. Sarean topatutako datuak, informazioa eta eduki digitala antolatzen, biltegitratzen eta berreskuratzen jakitea.
3. SAIOA: EDUKIEN SORKUNTZA
 - a. Bideotutorialak, infografiak, aurkezpenak... ekoizten ikastea.
 - b. Aukera horiek baliatuz ekoizpen batzuk sortzea.
4. SAIOA: ETENGABE IKASTEN JARRAITZEKO NORBERAREN IKAS-ALORRAREN GARAPENA
 - a. Norberaren Ikas-alorraz gogoeta egitea eta hura etengabe nola elika daitekeen jakitea.
 - b. Norberaren abiapuntuaz diagnosis egitea.
 - c. Euskaraz modu eraginkorragoan lan egiteko baliabideak ezagutzea (itzultzaileak, testu laburtzaileak, testu idatzitik ahotsera pasatzeko tresnak, ahotsa transkribatzeko tresnak...

EBALUAZIKOA

Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete direla bermatzea.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

APROBETXAMENDUA

%80ko bertaratzea eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoan jakinarazpena jasotzen duzunetik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

186 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

